

BIZKAITARRAI- BIZKAIERAZ*

www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

342n. zenbakia

2008 urrilla



OLAZAR'TAR MARTIN'EN OROIMENEZ



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

Euskalerrian euskeraz

E U S K E R A Z A L E A K

2008-2009 IKASTURTEA

BIZKAIERA 41. IKASTAROA IRU MAILA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA
EGUENETAN

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 140 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2 - urrutizkiña 423 53 22 - Bilbao

Asierea: Urrillaren 6'an

41.º Curso de Euskera Bizkaino 3 niveles y conversación

Días: Lunes, Miércoles y viernes, o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 140 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2 - Teléfono 423 53 22 - Bilbao

Comienzo: 6 de octubre

“AGUR MARTIN !!”

LAIÑO: Martin`ek, len Trebiño`tik ibili giñanean Laño`ko koba inguruetan ur geiegi egon zalako, ez genduzela gura gendun bezela ikusi eta 2.008`an Dagonilla`ren 26`rako itzi gendun, txangoketa osterata baten, guk genuen eran ikusteko.

Enintzan konturatu, beren leenengo apaiz-ingurua agurtu gura ebenik areik eta ni oartu arte, Martin`ek askeneko denboratan ez ebalatzen gura ainbeste ordu berebil-gailluan ibili, asko nekatzen zalako eta jakinda zelakoa nazen, niri ainbeste olako astarnak itzi, gero josi dagiazan “ZER” eta “EUSKERAZAINTZA”ren aldizkarietan argitaratzeko.

Egun onen goiza laiñotsua agertu arren, egun on-berezi bat egin euskun orrelako txangotasunean ibilteko eta Mungia`tik 9`rak eta laurentan urtenda, bidearen aztarna naasi edo gal-erazi ondoren 10`terdietan bertora eldu giñan.

Goba oneik asko eta VI`n ta VII`n gizaldikoak dira. Euskalerrian Kristautasunaren asieran, asko izan ziralako mundu onen zalekiritik iges eginda, Arima`ren bizitzak zuzentasunezko bidetik JAINKOA`ri eskeintzeko gertu egon zirenak.

Trebiño`ko eremutar edo bakartiarren goba-geienak, Laiño-errira eldu orduko dagon ibarra`ren albo bietan eginda dagoz. Ezker-aldean Santorkarien ogei-goba dagoz eta eskomatara amaika inguru.

Gu eskumako gobak ikustera joan giñan eta zelan ta nun dagozan eginda ikusi genduzanean, nik arrituta Martin`eri itandu neutson: “Denbora aietan egiten eban otza`rekin alako auntz-bizi lekuetan, nundik bizi edo zelan elikatu ?. Abere askoren ingurua zala eta baleiteke, nekazariai laguntzaren eskeintzatik !!. A-ta guzti, bizi gogorragorik ezin aukeratu.

Eremu`tar edo bakartiar onen bizitzaukera oneik, Eleiza`ren aztura bidetik asi ziran aienatzen, lekaime/lekaide oneik



lekaretxe-arauz antolatuta egin ebezalako.

Gure Barandiaran`tar Joxe Miel`ek, goba onekaitik esaten eban: “Goba oneitan, Arriaro eta arri-aro barrien bitartetik, bisigodo`en aldi`rarte, bakartiar bizi zirala eremu`tar oneik”.

Eta gure Latxaga jauna (San Sebastian`tar Joxe Mari), Gizadi-iztian (antropologia), Teologia`n eta Euskerazko ele-jakintzan jakintsu aundiak esaten dau “Euskalerraren Kapadozia” dala (Kapadozia, lekaide asko egoan lekuari esaten jako).

Gaurko argazki-gailluak aukera asko emoten dabelako, argazki asko atara genduzan, gero gure genduzenakaz geratzeko.

Gero, Nafarroa`ko mendi-kateetan Araba`ko

mugan Toloño mendizerretara joan giñan, goi-aldean 1.245 m. daukazenak eta Lizarrako merindadearen Agilar-Ibarrean dagozan Lapoblacion`go (961`eko mendi-garaieran kokatuta, 18 km. Karratuak daukaz eta 215 biztanle. 1.180`ko agiri baten aitatzen da leenengoz) Lapoblacion (45 biztanle) eta Meano`ko (170 biztanle) errietara joan giñan (aipagarriak dira XIII`n gizaldiko Andra Maria`ren Jasokunde Eleiza



Gorpuaurrengo
Illeta
GAUR,
asteartea, 23
arratsaldeko
7.00etan
MUNGIAko
Andra Mari
eta San Pedro
Parrokian

OLAZAR eta URIBE`tar Martin Abadea

(Goianbegi)

**EUSKERAZALEAK eta EUSKERAZAINTZA`ren
Lendakaria**

Asko goratu bearko geunke ainbeste urteetan
Euskerazaleak eta Euskerazaintza`ren gandik
biotzez eta maitasun andiz egin dozuzan alegiñakatik.

«AGUR MARTIN» egun aundirarte



eta XVⁿ mendeko etxeak, bai Erdi-Aroan egon ziran gudu-latzak), bertan gazta ta lukainka apur-bat, ardo ta melokotai-zukuagaz jan edateko.

Emendik aurrera, Konturatzen asi nintzan, ni konturatu naiten izten ebazan aztarnakaz, berebil-gailluaren gidaritzan itanduten neutselako nondik ? berak bid-erakuslearenak egiten, eskuaren zuku-atz'ekin aztarnatu (indicar) egiten ebalako.

Ardura aundi barik eta nirentzat erdi-galduta, Logroño^ora joan giñan eta Biasteri, Bastida eta inguruko erri-txiker guzti orreik ikusita, arratsaldeko bostetan Espejo errira joan giñan bazkaltzera eta nai-ta Martin^oek euki, urte askotan ondo ezagutzazko gomendioagaz-be, ez euskuen bazkaririk emon eta Angosto^oko lekaidetxea ta Amabirjiña ikustera joan giñan. Bertan jan genduzan urdai-ontzaki edo urdai-azpiko okelagaz ogi-tarteak beteta eta Eleizan egonda ta Amabirjiña ta errekea ikusi ondoren Gaubea ta Mioma bitartean, Omezillo ibaiaren ezkeraldetik Arabaⁿ sartzen dan Burgos^oeko adarrean Valpuesta izenagaz dagoan (“Villanueva de Valdegobia” / “Gobia^oko ibar edo arana esan gura dauana”. “Valpuesta” eta alako izenak ipini ebazanak, ez eben euki Euskara^oren zaletasunezko usaiñik eta izkitegietan ez diralako agertzen, zentzun-gabeko aipamenean geratu dira) lekura joan giñan, erdi-ugarte oneitan egin zan leenatariko Eleiz-Nagusi edo gotzai-Eleiza (catedral) ta inguruak ikustera.

Gotzai-Eleiza ori ikusten gagozela Martin^oeri esan neutson: “Gaztelarrak ez daukie eskubiderik, leentariko Gotzai-Eleiz onek edestian daukan garrantzi aundiagaz, itxura orregaz eta ain arreta-gabekeria (desatención)

eukiteko”. Ala..., bildur dira beren berezko Euskal-jabetasunera itzuli daiten ?. Olan ez bada, eleuke egon bear ain ardura-gitzi erakusten dauan lotsa-gabeko eskuetan.

Gaubea, Araba^oko Udallerri onek 553 m. mendi-garaieran kokatuta dago 238 Km. Karratu daukazela eta 898 biztanle, eta daukazan auzuneak: Azebedo, Astulez, Barrio, Basabe, Batxikabo, Belloxin, Bilanane, Bobeda, Korro, Erribera, Espejo, Fresneda, Ginea, Gorostiaga, Gurendes, Kexo (badagoz erri onek daukan Eleiza^oren argazkiak), Karanka, Karkamu, Lalastra, La(h)oz, Mioma, Nograro, Osmá, Pinedo, Kintanilla, Tobillas, Tosta, Balluerka, Billamaderne eta Uribarri-Gaubea. Lur onetatik, Omezillo eta Tomezillo dira igarotzen diran ibai nagusiak.

Erri-txiki oneik ondo arakatuta gero, gaubeko 10^orrak ziranean etxera^oko bideratu gintzazan eta Karkamu, Fresneda ta Osmá^oko bidea artuta Urduña^oko mendatea aldatu gendun, Laudio, Arrigorriaga^o tik Donosti^oko bidezabala artzeko eta Galdakao^on urten da, Erletxes^oetik Mungia^ora eta ni Zorrontza^ora joateko.

Egun polita igaro gendun eta itxaropentsu geratu giñan, alango beste txangotasunezko egun baten, EUSKALERRIAN ezetzen ez doguzan erri ta lurra arakatzeko.

Ez nintzan konturatzen, txangotasunezko azken bidaia izango zala alkar egiten genduna eta gitxiago urrenez-urrengo gertatuko zanarekin.

Osasunezko larri-aldietan sartuta: “MARTIN” Euskal-nortasun aundikoa izan-da, JAINKOA ta gure erri-gizartearen aurrean.

Eta orretaz oartzeko, ez dago besterik ikustea baiño, eten-bako lanean, zelako merezimendu aundian egin dauazan beren zeregiñak JAINKOA eta Erri-Euskera^oren serbitzura.

Nortasun bardiña erakutsi dau bere osasunaren gora-beran, iñori ez dautsolako itzi, beren bizi-gaixo arduraren sartu daiten.

Niri aztarnak itzi bai, egun baten deitu egin eustalako Kurutze^oko-eritegira joan gaitez, berak beren gaixoa eroaten eban osagillearen-gana joan bear zala-ta.

Orduan oartu nintzan, bere gaixoa, este-lodian min-bizia zala euki ebana eta euren alboan egonez entzun, osagillearen aldetik esanda: “Aukera bi eukazala, miñaren miñez edo eta miñ-gabeen bizitzeko”. / Martin^oek: “Zelako epe-aldia dago bien artean ?” itandu ta gero. / Osagilleak: “Bardiñ antzekoa” eranzun eutson.

Martin^oek andik aurrera ez eban euki miñik, baiña zeozer geiago jakin eban berak, Araba^oko lurraldeak agurtzera joanda Laiño^oko bidai onen aurretik apur-bat oritzen joan zalako eta bera ez zan arduratu areik eta oritasunezko baltzitasun ori nabaritasunean agertu arte.

Bera bakarrik joan zan Ama-Bijiña^oren klinika edo sendategira eta Billanueba^otar osagilleak ogeratu eban.

Bereala deitu eustan eta bertara joanda, osagilleak oritasunezko (ictericia) gaixotasuna zala esan eban.

Eritetxean Irailla`ren eguasteneko 3`an arratsaldeko lauretan sartu zan eta Irailla`ren zapatuko 20`an egun onen asieran, gaueko leenengo orduan ordu-batak lauren miñutu gitxiagoak ziranean il.

Larogeita-bat urte Zemendia`ren ama-zazpian betetako euki ebala JAUNGOIKUA`ren ETXERA, BEREN besoetako zorientasunean bizitzera joan jaku MARTIN.

Iñor oartu-gabeko Martin`en azken aztarna: Martin, EUSKERAZAINTZA eta ZER aldizkariak argitaratzeko arduradun bakar-lez, zuzendu eta irraritzeko aginduak emon da, 341`eko zenbakiaren “ZER” aldizkarian itzi euskun.

Beren eriotza`ren ondorioz ni bakarrik geratuta, laguntza bear neban eta beragaz asko arduratu zan Gerrikaetxebarria`tar Andoni apaiza`ri etxera deitu neutsen.

Bereala agertu zan eta gaxo-etxeko ardurakaz oartu ondoren, berak gotzaintegian daukan bulegora eroan eustan, andik obeto eta eragozpenik gabe, egin bear genduzan deialdiak egiteko.

Andoni`gaz, Martin`ek itzi euskun aztar onein gora-beran asko itz egin neban, eritetxera egun guztietan etorri zalako Martin ikustera eta Gotzaitegia`ren igo-gailluan beren gelara joateko igoten gagozela itandu neutson: “Ezetz igarri Martin`ek azkeneko aztarna

non itxi euskun”. Andoni ez zan konturatzen eta neuk erantzun neutson: “Ez zara konturatu..., Martin`ek gure aldizkarietan beren argazkirik sekula ez dabela argitara agertu ?. Bai !! Egia da eta gaiñera iru argazki. Ortze daukasu-ba itxi dauskun askeneko aztarna.

Gu Bion alkar ezagutza: Ni, Aita-Santi`gaz Tolosa`n egin zan batzarrera “EUSKERAZAINTZA – EUSKERA`ren ERRI AKADEMIA” sortzeko zala joanda, ezagutu neban OLAZAR eta URIBE`tar MARTIN.

Aita-Santi`gaz gazteleraz idazten neban “EUSKADI” aldizkarirako, baiña Aita-Santi joan jakunean, Deba`n egiten genuen EUSKERAZAINTZA`ren batzar batean, Martin`ek EUSKERAZ idatzi bear nebala esan eustan eta nik ez nekiala esanda, berak: “Ori konponduko genuela” erantzun ondoren, askeneko denbora auetan bera EUSKERAZAINTZA ta EUSKERAZALE`en lendakari eta ni idazkari-lez, idaz-lan bitartez zorioneko artu-emon ederrak euki doguz, lan ugari eginda.

Badakit nik, Martin`ek JAINKOA`ren ZERUTIK gure zurztasunean (desamparo) lagundu be egingo dauskula “EUSKERAZAINTZA eta EUSKERAZALE`en” egin bearrak aurrera eroan dagiguzan.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZA`n 2.008`an IRAILLA`ren 23`an

“EGUN AUNDIRA ARTE”



Zubiri'tar Iñaki, Olerkari

Zer ete da olerkari izatea? Bertsoak osotzea soil-soil? Ori baiño geiago, nire eritxiz. Gure arimearen indar bik jokatzan dabe olerkigintzan: adimenak eta naimenak. Eta indar biok guztiz emonkorrak dira, alkar artu, eio ta sustaturik, posi-lan bikaiñak eskintzen dauskuezanak; batak gauzak ezagutu daroaz eta besteak maite izan, eta bion alkar ezagutze ta maitatzez, biok —buruak eta biotzak— barru daben alkar-experientzi sendo ta gatsuz, sekulako poesigintzan daragoioe.

Adin-biotzez orniduak gara guztiok. Baiña guztiok ez gara poeta, ez gara olerkari. Zergaitik? Zer daroagun barru ez dakigulako; eder-teknikaren zentzunik ikasi ez dogulako. Gure arimak sorturiko semeak zertaz eta zelan soñekotu ez dakigulako. Hölderlin doixtar olerkari biziak «olerkitsu bizi dala gizona», iñoan. Egia ete? Bai ta ez. Alde aundia, troka batetik besterakoa, dago gizaseme batetik bestera. Guk lurralde eder bat daukagu, mendi, ibar, itxaso... Baiña gizonon artean, onen bizkieratik arenera diferentzi izugarria dakust. Zuk be bai noski. Bizia askoz ederragoa litzateke lore artean bizirik, arantz artean baiño.

Sarri, tamalez, barru ta kanpo zer daroagun eta daukagun konturatu barik urrats dagigu bidean zear. Batzuk bizitz erdirantza itxartu oi dira: Dante, uste danez, bere bizitz-erdirantza asi zan *Jainkozko Antzerkia* idazten. Beste batzuk geroago. Ori gertatu jako emen aitatu nai dodan olerkariari be, au da, Zubiri'tar Iñaki'ri. Naiz-ta gaur Bilbo'ko «Euskeralzaleak» alkar-tearen buru izan, bere urteak ditula, ez da euskal idazle lez ezaguna. Txarto diñot, idatzi izan dauz artikuluak eta ba-ditu liburuak be argitara emonda, «Oroitzak» eta beste bat, polito biribilduak. Ezin esan, beraz, ain ezaguna ez dogunarren, euskal idazle ez dogunik.

Eta olerki-barrutian, ezer egin ete dauskugu? Baita.

1982'nko jorraiaren 24'an, Eibar'en «Euskerazaintza»-ren batzarrean giñala, «Bidari» izengoitiz izenpeturik, «Bidetik Amesetan» deritxon olerki-liburuaz atsegindu ginduzan. Gitxien uste dan bide-kurutzan erbiak zapart. 96 orrialde ditu liburuxka orrek, 41 olerkiz astun. Gai-mordoa darabil, atsegiñak oso. Rimaz eta neurritz, obeto ezin. Pentsamentu dotoreak eta jantzia be txairoa. Barrero diñotzut: atsegiñak!

1982'GNEKO «OLERTI EGUNA»

Dakizuenez, aspalditik ospatzen dogu, 1959'tik ain zuzen, Olerti Eguna emen Larrea'n Bizkaiko erdi-une lez dogun leku eder-eder onetan. Lenengo urteetan batez be, jente asko oneratzen zan, gerora pizkat urritu bada be. Nor-geiagoka bat iragarri izan da aurretik, olerki-batzaldi bat. Baita gure olerkariak pozik esku artu be! Beste batzaldietan baiño poesi geiago beti aurkeztu izan da gure sariaketetan, iñoiz eldu dira euneraiño be artu doguzan olerkiak. Ondoren «Olerti» aldizkarian argitaratzen ziran larrok, eta akulu bizia zan euskal olerkariarentzat; ez da geiegi esatea, gaur euskal olerkaritzan zerbait diranak, danak ez ba'dira be, geienak, ementxe, Olerti'n ezaldu dabezala euren lan baliotsuak.

Konkurtsu au iru zatitan banandua izan da beti: I. Lirika saila; II. Poema saila, eta III. Bertsolari saila. Iru sailok ondo beteak geratzen ziran. Baita aurten be. Adimen argiz, irudimen azkar eta biotzondo jori sentitzen ziranentzat, or lirika arloa; poema zaleak, barriz, urtez urte kementsu agertu izan dira, batez be legazpiarrak; eta bertsolariak emen eukien sail ederra eurentzat itxia.

Maikoak edo lanak ikusi ta aztertu dabezanak, txandaka egin izan dabe geienbat: igaz irabazi ebanak eta aurten irabazi dabenak egin bearko dabe epai-maiko datorren urtean. Luis Arostegi ta Balendin Aurre-Apraiz izan dira aurten, ni idazkari izanik. Ospakiro esaniko alkar meza nagusiaren ondoren, sariak emotea egin genduan. Iru lan ziran saritu bearrak: «Neskato itsua» lirika saillean, «Baso oiartzuna» poematan eta «Eztingintza» betso-saillean. Edegi ziran idazki-azalak, eta Zubiri'tar Iñaki genduan «Neskato itsua»-ren egillea, Beloki'tar Agustin «Baso oiartzuna»-rena eta Eusebio Erkiaga «Eztingintza»-rena. Jarraian, maikoak banazean emondako eritxi beziak irakurri ziran. Eta olerki sarituak.

Gero, aurretik ebatzita egoanez, Deba'ko euskal idazle jator «Tene»-ri omenaldia. Ontarako folio zabal nasai bi irakurri nituan nik aren bizitza eta olerki lanak aztertu ta azaldurik. Datorren urtean be, beste ainbeste egin gurarik, izan batzuk aitatu ziran —M. Zarate, J. Eguzkitza, E. Erkiaga...), eta azkenez E. Erkiaga'rekin geratu giñan. 1983'an, beraz, Jauna lagun, E. Erkiaga jauna omenduko dogu Olerki Eguenez.

«NESKATO ITSUA»

Besteak beste, Zubiri goratzen dogun ezker, azter daigun pizkat onen olerki-lana aurtengo sariketan lenengo saria jaso ebana. 15 estrofa daukaz, 9 lauko eta 6 iruko. Bederatzi ta amar silabakoak dira bertorik geienak, naiz-ta lege zurririk euki ez: ez jakon oni jaramonik egin. Rimaz laukoetan bigarrenak eta laugarrenak daroe azken oskidea; irukoak, ostera, lenengoak eta irugarrenak. «Olerkoia, baina ez ain ondo idatzia. 4 puntu», diño lenengo epailleak, eta bigarrenak: «Klasiko! Lauxeta ta Lizardi gogoratzen: «iturri gardena», «Laizeari itandu»... Onela gai ta azalaren bitartean: «iñontzeko alaba antzekoa», «suzmur orlegizko jorana»...

Neskato bat iruditzen dau olerkariak. Bakarrik dago neskatoa, arratsaldeko argi geldian. Ikuspegi zoragarria dau aurrez-aurre, baiña ez dau ezer ikusten; itsua da gaixoa, bere begiak ez dauke indarrik ezer ikusteko; zabalik daukaz, baiña ez dabe zabaldiko ederra ikusten; agor dagoz, idor, ildako artizarra iduri. Utsari begira neskatoa. Olerkaria urreratu jak, eta aren zoriaz biotz-mindurik, onela kantatzen dautso:

*«Baserriko bitxi kutuna
jaiotzetik laztan itsua,
aizeari itaundu egiozu
ikusten ez dozun mundua».*

Egia, neskatoak sarri itaundu dautso aizeari zela-koa dan mundua, koloreak, zugatzak, bere gurasoak, neba ta aitzak. Zerbait jaso dau ortik, baiña oso gixi; geiago nai leuke. Bere baserri albo abesten dautso txindor batek goiz eta arratsalde. Eta ari zuzentzen dautso samur itaun gozoa:

*«Illunabar oro dantzudan
Errotazuri'ko txindorra,
esaidazu zelangoa dan...».*

Bere egoitzatik ur-ur itxasoa dauko. Entzuten dau aren orroa ekaitz bakarretan; beste batzutan ez dau ezer entzuten. Zer jazoten ete? Olerkariak diñotsa polito ta samur:

*«Adats zuriko leoia da
aserre-bitsetan orruka;
bestetan, ostera, bildotsa
ondar bigunari musuka».*

Gorago, muiño ostein, iturri bat dago. Umetatik ara daroen ezker, ba-daki arako bidea, eta sarri zuzendu oi da bertara. Eder dau aren eresi-otsa entzutea, alboko arbel gaiñean jarrita:

*«Leiar-eresitan dantzudan
zabaldiko iturri gardena,
esaidazu zelangoa dan...».*

Eta iturriak (olerkariak) erantzun dautso, misterioz jantzitako itzez:

*«Iñontzeko alaba antzekoa,
iñar ateko apar galdua,
iraduz jabeturik doan
mendiko negar ezkutua».*

Irudimen jostariak mamindu dauan lore apaiña. Illun-litsez oretua bear dala olerkia esan daroenak, ba-dituzu. Baiña niretzat obe, barru ta azal, argi ta bizi, samur sakonak diranak. Atsegiña damosku argiak, eta illunak nekea ekarten. Bizi gaitez an olerkiz, eta olako osotuko.

AITA ONAINDIA

Lagun agurgarriok:

*Naiz eta gura izan, ezin izan dot leenago idatzi sendiaren oporretan beti lanperaturik nabillelako. Ia beti alderantziz izaten dala bada-
kit, baña etxeko andra izan (neskame) eta senide guztiakaz... Alan
gutziz ere, emen daukazue lan txiki ori euskera errezean.*

TREBETASUNA

Ez dot inoiz aztuko Durangoko gizon jator eta langille ori, bere eskuakaz edozein gorostiren adarragaz, makil ikusgarri eta zoragarria egiten eban. Makil buru batzuk, baserritar edo etxeko andrearen buruagaz apainduta, beste batzuk, sugearen irudiagaz edo gaztelu zar eta ederragaz. Bere trebetasuna siñistu-eziña dirudi ikusten ez bada.

Gizona bera zintzotasunez beterik dago, lerdena gorputzez eta begirakunean gozotasuna ta artegatasuna nabaitzen jako. Ez da arritzekoa urduritasun ori, bere lan

trebea, beragaz ilko dala, ondo daki eta.

Orrelako ekintza ugari zan gure lurretan eta lenengo egilleak artzañak ziran. Euren lana egiteko, gauza garrantzitsuenak, astia eta gorostiak ziran.

Orain egurra lantzeko tresna asko dago eta asti gitxiagogaz lan bikaña egiten da. Lan orreik izakera ba dauke baña berotasunik ez, berotasun ori, gizonaren eskuak bakarrik emoten dautsoe eta nik, gizon larritsu ori ikustean geiago esango neuke: Bere makil zoragarri bakoitzari biotz-zati bana emon dautsola.

EUSKEREAK MAITEMINDUTA

Gogamenera zatorkidaz
egunero maitia
ainbat zuri emon guraz
bizi dot nire bizia

oso gitxi emon dautzut
baña biotz-biotsez
onartzen badaustazu
betetzen nozu pozez

zuk niri emon daustasun
betirako zoriona
biotzez eskertzen dautzut
niretzat asko data

zure edertasunagaitik
neu aleginduko naz
gero ta geiago ikasten
eta poztuko zara

Nik zugaz ez dot nekerik
dana da poztasuna
egun zaitetz nigaz beti
bakean eta gudan

orain askok saldu zaitu
naiz ta zu ama izaten
baña orrelako semerik
ez dau inork beartzen

nik ez zaitut zu salduko
jaiotzez ez ezagutu arren
maitasuna emongo dautzut
il ordua eldu arte

zure berba ain gozoa
doñu orregaz egiten
sakonengan dot sartuta
BIZKAIER I batez be

P IUMI'K

ARPIDETZEKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... 'tar
 kalendar (auzoan zenbakian
 errian, errialdean (probintzian)
 Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,
 an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN “**ZER**”. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

IKASLE TXARRAREN DOTRIÑA

(8.ko Nagusia)

Goizian goizik jagi ezinik
izaten dodaz ainbat lan,
eguneroko oitura ontan
nik ezin dot segi olan.
Aita ta amak esaten deuste
ikasi eik badaezpadan,
baina ni laster abrozitzen naiz
liburuen mende eskolan.

Nik, eskolara asi orduko,
jaso dot ainbat frakaso,
eta etxian ori dala ta
izan dot mila arazo.
Zenbakiekin sekula santan
ez nenbilen animoso,
orrexegatik Matematikan
ez naiz egoten eroso.

Matematika klase ugerra
kiputz bat dabil emoten,
danok klasera sartu orduko
jartzen gaitu lan egiten.
Jada aspaldi nekatu naiz ni
gauza berdinak ikusten.
Gure maisua obe legoke
bera sortu zan Oñaten.

Egunero lez asi jaku gaur
txapa ederra soltetan.
Jende guztia aurkitutzen zan
bere adi erdi lotan.
Neure gustoko gauzak egiten
asi naiz orri batetan,
klase astunak arintzearren
ibiltzen naiz ni bertsoetan

Gure maisuak tonto itxuraz
zur dauko bere begie.
Atzeko iladan egonarren ni
adi ibili da ostie.
Albora etorri ta momentuan
esan deust: ona orrie!...
Bertsoak eiten arrapatu ta
kalera bota nabie.

Bertsoak lantzen ibiltzen naiz ni
zorutzen egun eta gau.
Klasean iru idatzi dodaz
eta kalean beste lau.
Bertso guztiak amaitu ondoren
buelbaka astea akordau.
Kalean lasai nenbilen baina
amak ikusi egin nau.

Amagaz aurrez topo eginik
arnasa joan jat kasi,
klaseko ordua libre dodala
ein deustat jakinerazi.
Argi ta garbi berba einarren
amak ezin deust sinetzi.
Eskola itzi ein bearko dot
eta biarrian asi.

Neure bizitzan izan dodaz nik
makina bat gora-bera,
eskolan notak egungo bere
ez dodaz onak atera.
Orrexegatik eskola itzi ta
joan naiz lan egitera.
Zortzi bertsoetan esan nai neban
jazo jatan gertaera.

EUSKAL ASTEA

Urte guztietan lez, aurten be EUSKERAZALEAK ALKARTEA'K Euskal Astea eratuko dau



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

Astelena: **Legarreta'tar Asier**
Martitzena: **Uriarte'tar Ana**
Eguaztena: **Atutxa'tar Paul**
Eguena: **Uriarte'tar Ana**
Barikua: **Atutxa'tar Paul**
Tokia: **Euskerazaleak**
Ordua: **Zazpi'ta erdietan**

EUZKADI'N EUZKERAZ

Bosnia'tarrak Euzkadi'ra etorri eta erdera irakatsiko zitzaiela ez genun iñola ere uste izango baña alaxe gertatu da. Ordizi, Eskoriatza ta Legazpi'ra etorri zaizkigu ta erdera irakatsiko zaie!

Azterketa egin bearra degu: Bear aña maite al degu Euzkera? Aal degun guzian erabiltzen al degu? Gure Izkuntza lantzen sayatzen al gera? Erbestekoak etorri ta gure izketa entzunda, Euzkadi'n ala Españi'ko edozein lurraldetan dirala uste izango al dute? Izkuntza galtzen ba'degu Euzkadi galdua dala ez astu. Guziok degu ba erantzukizuna arazo ontan.

Onetzaz gañera, atzerripetuai erdera irakasten be'diegu... Gureak egin du!

Ondoren, Ordizi, Eskoriatze, ta Legazpi'ko Endoreai (Alcalde) bialitako

Agur Jauna:

Bosnia'tik Euzkadi'ra etorri zaizkigun erbesteratuak zuen Erria'n dituzutela jakin degu. Bijoakizue gure zorion-agurra.

Baña gure kezka azaldu nai dizuegu. Izparringian ikusi degunez gaztelera irakasteko asmoa da. Etzaigu au iñola ere zuzena iruditzen.

Gaztelera al da gure Izkuntza? Gure Aberrian'n erbesteko izkuntza irakastea ondo iruditzen al zaizu?

Bukatzeko ona emen gure iradokia (sugerencia): Euzkera irakatsi, bai, baña EUZKERA JATORRA, ez orain, zoritxarrez, nagusitu zaigun "batua" izeneko ori.

ARZELUS'tar AMALE
Lendakaria'k
(ARBASOEN IZKUNTZA)

LAUAXETA

Il-zorian egon
lorerik ederrena
mintzaireen artean;
alde guztietatik
etsaiak orroaka
min gaiztoenean.

Gorrotoa ta irain
itzez eta ezpataz
nai zinuezan austu;
zer zeunkan, euzkera,
zergaitik nai eben, zu,
erre oparitu...?

Egoera larria...;
Gau baltzaren gaupean
ba-dator izarra;
garo usaia dakar
argia ta suz jantzirik,
Urkiagatarra.

Berezko doi ederrez
mindu ziñan erriaz
sorrera garbian;
odola zeunkan lertzen
amaren gal-zorian
kateien azpian.

Oi, zeñen samiña dan
ixildu ezindako
amaren negarra...
gizonak ama il nai...
zuk, ezin etsi...
barneko deadarra.

Ziñaren indar aundiz
dana eskeini zeuntsan
euskaldun lurrari;
azur, mamin, odola,
grifiaz maite zenduan
Aberri amari.

Euzkera zan zure itza,
odolaren tantoka
oguzi zenduna;
beroa ta sendoa,
biotzean zendukan
bitxi bikaiñena.

Euskaldun egia
odol biurtu jatzun
izate guztian;
euzkotar gogo zarra
laba goritan zeunkan
urtutzen bizian.

Martirien odola
emon zeuntsan lurrari
kristau argietan;
Euzkadik maite zaitu
eta Aitak onartu
zorion baketan.

Zure Jeldar bideak
argia zabaldu dau
Mungia aldean;
maisu artzen zaitugu
izkuntza ta jakintzaz
erritar bidean.

PAULIN

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

SOZIALISMOA BIZKAIA'N

Jakiña da P.S.O.E. deiturako erakundea Pablo Iglesias'ek sortu ebala España'n 1.879 urtean.

Eta U.G.T.?

Iru urte geroago, 1.882 urtean sortu zan Barzelona'n, urte aretan ospatu zan Langilleen Batzar Nagusi baten ondorenez.

Alaz eta esan geinke bere oiñarri eta araua ez zirala idatzi 1.918 urte arte.

Baiña ez zabaltzen asi barik egoalako.

Estadistiketatik dakigu 1.917 urtearen asieran 39 talde eukazala U.G.T.k Bizkaia'n, eta talde guztien artean 4.646 bazkide.

Zelan lortu eban erakunde orrek Bizkaia'n sartzea?

Danok dakigu industriko iraultza lakoa egon zala Europa'n XIX garren mendearen lenengo zatian.

Eta orrek zer ikusia euki eban Bizkaia'n, batez be zotin eragin Bilbo inguruan egoan meatzetako (miñetako) aberastasunean.

Jakiña da Bizkaiko industria etxeetako industri txiki izan zala luzaro. Ala izan zan gizaldi luzeetan. Etxeetako burdiñola edo errementariak egozan emen. Baiña Bessemer'ek fosforodun ez ziran meazkiak erabilteko erabide bat aurkitu ebanean, orduan galtzairu garbi biurtzeko era billatu zan, eta len emengo burdiñoletako lan berezi zana, orrela altsu eta indartsuen gintza biurtu zan.

Eta erbestetarren eskuetan geratu. Ala sortu ziran Triano, Orconera, Franco Belga eta abar. Eskubide bereziekaz gañera.

Ba euken euren epe bat. 1.880 urtea ain zuzen. Urte orretan Bizkaia'n 2.684.000 tonelada meazki atara ziran eta euretatik 71.000 Barakaldo eta Begoña'ko su-tegietan landu ziran.

Orrek izugarritzko eragiña sortu eban Bizkaia'n. Bilboko ibar ertzean ainbat idustri laguntzaille sortu ziran. Gañera Bessemer'en erabidea Thomas'en erabidez erraztu zan eta orrek oraindik industri andiangoak sortzeko aukera emon.

Gañera, esaten danez, tren bideak sortzeak be garpen andia emon eutsan emengo industriari.

Kontu egin tren bideetako legea 1.855 urtean agertu zala eta 1.862 urtean Bilbao-Miranda egin zala; 1.865 urtean Triano. Eta Nerbioi inguruan bertan jaso ziran lantegien artean 80 kilometrotako bideak sortu zirala.

Orrek gizon premiña andia sortu eban eta kanpoko jende askoren bertaratzea gertu.

Jenderik geiena Galizia, Kastilla erdi alde eta Kastilla ego aldetik etorri zan.

Ortxe egon zan emengo sozialismoaren oiñarria.

Etorrera orrek gizabide barria sortu eban eta ortik sozialismoa.

Ezaguna da gizonei jagokezan baiño baldintza bera-gokoetan etorten zirala. Beartu egiten zituen kapatazen eskuetan egozan barrakoietan bizitera.

Janariak be, nai ta ez, kapatazaren kontrolpean egozan kantiñetan erosi bear izaten zituen. Jokera orrek mesede andiak erakarten eutsezan kapatazei.

Norbaitek gogoratu lei: Eta Bizkai eta Euskalerriko jendea?

1.904 urteko agiri baten irakurten danez, kapatazak naiago eben euren menpean barrakoietan bizi bearra eukan jendea. Azken baten oneik onura ugariago emoten eutsen eurai, kapatazei, euren etxeetatik lanera joaten ziranak baiño.

Kanpotarrak nai ta ezko euken al eben tokian sartzea. Etxerik be ez egoan toki askotan. Ortik, nai ta ez, kapatazen babespean lan egin eta aren menpe eta baldintzetan jan, jantzi eta bizi bear.

Ortik laster sortu ziran asarreak. Ortik sortu zan langilleen lenengo oporketa, uelga, 1.890 urtean, La Arboleda'n.

Orrelako egoera baten, norbaitek itandu leike zelan konpontzen ziran kanpotarrak eta emengoan alkar arteko lanean.

Zela ala konpondu bear. Ori da erantzuna. 1.887 urtean egin zan erroltzetik dakigunez Bilbo inguruan 12.981 langille euskaldun ebiltzan eta 9.776 kanpotar. Barakaldo'n 2.593 euskaldun eta 1.998 kanpotar. Portugalete'n 894 euskaldun eta 662 erbesteko; Santurtzi'n 1.514 euskaldun eta 1.429 kanpotar; Trapagaran'en 892 euskaldun eta 2.543 kanpotar; Sestao'n 1.096 euskaldun eta 1.988 erbesteko.

Or ikusten da gizaldi orretan zelako arrakasta euki eban Bizkaia'n erbestetarren etorrereak.

JAKINGARRIAK UGARITZEN

Gorago esan dogunez P.S.O.E. 1.879 urtean sortu eban Pablo Iglesias'ek Madrid'en. Emen Bizkaia'n zazpi urtera ezagutu zan. Facundo Perezagua izan zan emengo lenengo lendakaria.

JAKINGARRIAK

Oargarri bat. Sozialismoa, Madrid'en lez Bilbao'n be, irarkoletako langilletatik edo euren artean sortu zan. Orren atzetik etorri ziran 1.888 urtean Argiñen elkarrea (Sociedad de Obreros Canteros) eta beste bat 1.890 urtean, Nasako eratzaille-zamatzaileak. (Moldeadores y cargadores del muelle).

Orrelako joeretatik Bilbao, Estatu maillan, sozialista sutegi biurtu zala esaten da. Laster zabaldu zan erakunde ori Barakaldo, Sestao eta Erandio zear. Geroago Enkarterrira.

1.892 urtean sortu zan Sestao'n Galdaragilleen alkarrea; Barakaldo'n Laba Garaietako langilleena; Erandio'n, 1.902 urtean, Mekanikari, doitzaille (ajustadore) eta tornuetakoena. Baiña lenago sortu zan Begoña'n, 1.896 urtean, Agrupacion Sozialista deiturakoa eta onek garrantzi aundia euki eban Bilbao'ko kondairan.

Gizaldi barria astean, au da, gure gizaldiaren asieran, Madrid geratu zan alderdiaren sorleku lez. Urren-go Bilbao. Bigarren Batzar Nagusia, kongresua be, Bilbao'n ospatu zan. Eta batzar orretan erabagi gogor bat artu zan: Irakatsia (dotriña) alboan laga eta zuzen zuzeneango ekintzak egitea.

Batzar ori Dagonillaren 29'tik 31 bitartean ospatu zan.

Orduntxe erabagi zan urtero Maiatzaren lenen eguna ospatzea eta egun orretan ezin zan tokietan, lenengo jaiari agerkundeak edo "manifestapenak" egitea.

Eta orduntxe erabagi zan baita, kapitalistei, dirudunei indarra kentzen joan al izateko, urren-go auteskundetatik asita, sozialista aldun gaiak aurkeztutea.

Batzar ori egin eta andik lau urtera asi zan kalareztzen La Lucha de Clases izeneko astekaria.

Bilbaoko Sozialista Alkarrearen izenean agertzen zan. Bertan idazten eban euskeldunen artean Jose Aldekoa, Luis Agirre, Tomas Meabe eta Migel Unamuno agertzen ziran.

Gráficas Grijelmo irarkolan ataraten zan asieran. Gero aldatu zan Tipográfica Popular'era.

OPORKETAK (UELGAK)

Goiago esan dot 1.890 urtean La Arboledan egin zala Bizkaiko lenengo geldialdia.

Zeatz esateko, gogoratu bear gendun Markiñarrak, ango errementariak, Errege Katolikoaren denporetan egin eban geratualdi bat emoten dabela Bizkaian ezagutzen dan lenengotzat.

Ori azalduta goazen darabilgun gaira.

Zergaitik izan zan La Arboleda'ko asarraldia?

Langilleak esaten eban bizi eragiten eutsezan txabola eta barrakoiak osasun kaltegarri zirala, eta eskatzen eban nai ta ez erosketak egin bear izaten zituen kantiinak be kentzeko.

Eta ordu gitxiago lanean.

Ori jakiña, egosten asia zan opilla zan. Nai ta aitzakitza Orkonera'tik bost lagun kanpora atara zituela-ta asi. Orkonera au zan alkarerik altsuena.

Geratualdia Maiatzaren 13'an asi zan eta laster zabaldu zan inguruko lantegietara eta ogei milla langille gelditu ziran lan-geldialdian.

Orrek laster ekarri eban agintarien erantzuna. "Estado de sitio" esaten dana agindu zan. Donosti'n egoan Loma general militarra bialdu eban Bilbao'ra, soldadu talde andi bategaz, bakea indarrez lortu eragin naian.

Esaten danez, Loma'k zentzuz jokatu ebalako ez zan odol ixurtze askorik gertatu ugazaben morroi eta bestelakoen artean.

Orrelako ekintzak beti ekarten dabe ondorenen bat eta orduntxe lortu zan langilleak nai eban tokietan lotarako ostatuak eukitea eta gura eban kantiñetan euren janariak erosteko eskubidea eukitea. Eta langilleak geiago nai ebena: Galerazo egin jakoen kapatazei kantiinak euki eta janariak saltzea.

Orduen goraberan, eguneko amar ordu lan egitea erabagi zan, baiña urteko denboraldiak kontuan eukita. Au da, 9 ordu Azilla, Abendu, Urtarilla eta Otsaillea; 10 ordu Marti, Apiril, Irail eta Urrillean, eta 11 ordu Maiatz, Bagilla, Uztail eta Dagonillean.

Andik urte bira, 1.892 urtean, Meatz-toki guztietan egin zan geratualdia, toki batzutarako lortu zana danetarako zabaltzeko. Baiña oraingotan langilleak ez eban ezer lortu. Amabost egun geldi egon ondoren barriro lanean asi ziran, makurtuta. Eta gero, 1.894 urtean barriro, oraingoan laneako orduak gaitzat artuta eta ogi txarra emoten eutselako. Eta gero ia urtero, baiña konpañiak indar andiegi euken ezer lortzeko.

Ori da, beraz, sozialismo indartzeko Bizkaia'n egin zan giroa.

Beste gauza bat, au be jakingarria. Zegaitik deitzen eutsen orduan ona etorten ziran langilleei maketoak?

Askok egiten daben itauna da. Eta erantzuna, batzutan esanetan au: Ia esku utsik etorten ziran jendeak lan billa, maleta edo antzerako ezer barik, makutotxu batzutan euren gauzak ekartzela. Eta ortik, "los del macuto"tik sortu ei zan maketoak ditura geratzea.

ZUBIKARAI TAR AUGUSTIN †

BIZITZAREN KANTUA

Lenen lenengo aitatu nai dot
 Egillearen izena,
 nork egin leike ikusten dogun
 lurraren edertasuna!!!
 mendi ta zelai eta itxaso...
 au da gure zoramena,
 alde danetik agertzen jaku
 jakituri ta almena.

Zein aundia dan kristau fedea
 izadiaren aurrean,
 egiñetatik ateraten dau
 nor dan Jaubea lurrean;
 berezkorikan, emen, ez dago
 edertasunen artean,
 gizon almenez goitikan dago
 Jaungoikoaren menpean.

Euskalerrira begiraturik,
 oparo dago lur dana,
 arkaitzak, gogor, agertzen dabe
 gizonen lerdentasuna;
 ibar-zelaiak opaka dagoz
 orlegiz itxaropena,
 euzko bizitza, emen, sortu zan,
 izanik lur jatorrena.

Lur eta gizon elkartu ziren
 Aitorren aldi aretan,
 euskal mendiak emoten eutsen
 gizonen jitte benetan;
 lurak sendoak, alan semeak,
 bulartsu, beti, lanean,
 jakituria artuten eben
 gizonak euren lanetan.

Lur malkarretan lana egiñez,
 sortu eben Aberria,
 gizonen soiña azur tankeraz
 eraturik antzekoia;
 euren arteko gora-berekaz
 sortuz bizitz iturria,
 bizitz bardiñaz eratu eben
 euskal odol berezia.

Euskaldunaren gizentasuna
 izan da arrigarria,
 bera dabillen toki guztian
 zabalduten dau argia;
 epo direnak, ezin ikusi
 zentzundun indar bizia,
 zeru ortzeko izar argiak
 dira euskaldun jendia.

Euskal jendea, beti, izan da
 erantzupen aundikoa,
 esku lanetan ez jako jausi,
 iñoiz, beraren gogoa;
 buru bearrak argitu dautso
 beren egizko asmoa,
 ekin ta jarrai, aurrera doa
 enda berebizikoa.

Egia dauka bere goiburu
 Euzko Jaurlaritza argiak,
 Euskalerriak bear ditun lez
 gizon jator ta trebiak;
 alde danetik, marmar, dabilzaz
 euskaldunaren etsaiak,
 baiña, zu, zutik, joango zara
 jarraituz zure bideak.

Euskal ertzaiñak agertu jakuz
 Euzkadiren izenean,
 zentzun aundiko neska ta mutil
 erri lanaren aurrean;
 gizontasunez zainduko dabe
 bizia gure artean,
 zorioneko gazte leialak,
 zatoze ordu onean.

PAULIN



TXABI TA TXIBI

(“Kili-Kili” aldizkaritik artu eta umeentzat antzezteko egokitua. Edonork, edonun eta edonoiz antzezteko egiña. Baiña ez edozelan: polito, gatz eta piperraz!)

Antzezlariak, antzeztokira urtetan diranez:

TXIBI txakurra: ume bat txakur jantzita. Besterik ez badauka (buztan edo belarririk edo), naiko izango dau samatik ugela bat ipiñi ta “lau anketan” ibiltea.

TXABI.—“Txibi” txakurra egiten dauan umea baiño mutiko aundiago bat.

AITA.—Txabi’ren aita.

AMA.—Txabi’ren ama.

Txibi, aurrean ontzikada bat jateko dauala mukerka dago, negar-ausiak egiten.

TXABI’k (agertuaz, TXIBI’ri): Oindiño olan?...

TXIBI’k.—Ez, zelan ba?...

TXABI’k.—Ez dozu jan gura?

TXIBI’k.—EZ! EZ! Eta Eeez!...

TXABI’k.—Ederto! Oraintxe ikusiko dozu ba!

TXIBI’k.—Ikusi zer?

TXABI’k.—Aita! Asi da au gaur ere koplak egiten. Ez dau gura jan!...

TXIBI’k.—Koplak zera! Jan zeuk gura badozu! Zeuret zat!

AITAK.—(Agertuaz) Kopla larregiak dira orrek!

TXIBI’k.—Bai, koplak dirala esan oindiño!

AITAK.—Lotsa emon bear jako lotsagaldurorri. Neuk irakatsiko dautsat lotsa nori dautson zer! Txibi, jateko esan dautsut!...

TXIBI’k.—Eta niri zer! Eta niri zer!

AITAK.—Bestela ez dozu... ez okelarik, ezta ere pos-trerik izango! Ez dozu etxetik urtengo...

TXABI’k.—... ez eta telebistarik ikusiko nigaz! Ementxe barruan bakarrik egon bearko dozu beti! Jolas egin barik eta ilunetan!

TXIBI’k.—EZ! Ez! Eta ezetz esan dot!

AITAK.—Ia, azkenengoz: Iru kontatu orduko! Bat... Bi... IRU...!

AMAK.—(Agertuaz) Itxaron, itxaron! Gura ez badau, zergaitik jango dau ba? (esanaz, txakurraren jateko ontzia eroan egingo dau).

AITAK.—(Minduta) Baiña... zer egiten dozu? Nire aginpide ta nagusitza agertzerakoan... ba zatoz... eta beste barik...

TXABI’k.—(Arrituta eta minduta). Nik, gura ez arren jan egin bear izaten dot beti!...

AMAK.—(Urrinetik, deika, deadarrez): Janaria ederra eta duan... auzoko txakur guztientzako!... Baita katuentzako ere nai badabe!

TXIBI’k.—Kaii! Uau, Uau! (Salto egin eta arrapaladan joanda, niam, dranga, dzist eta zaust, drak-drak iruntsi egiten dau jatekoa: Ontzia garbi-garbi itzi. Aita ta Txabi arri ta zur eginda, ago-zabalik begira geratzen dira).

AIT.—Olangorik!... Beste orrenbeste!...

TXABI’k.—Ai ba!... Ene ama!...

AMAK.—(Besoak gurutzatu eta aita-seei begiratuaz): Zuek, gizonok, dana dakizuelakotan... munduko sikologiarik ezer ez dakizue!...

TXABI’k.—Aita: zer da munduko sikologia?

AITAK.—Ba, etxeko andralogia edo...

TXABI’k.—Eta amak, zer dala ta, zergaitik diño, munduko sikologiarik ez dakigula gizonok?...

AITAK.—Ba, txakurlogiarik ez dakigulako edo...

TXABI’k.—Ama! Zer da...

AMAK.—(Urrinetik)... Urrangoan! Ez daukat astirik! Zure praka barriak garbitu bear ditut!

TXABI’k.—... zertarako? ...

AMAK.—Atarako! !Atako!!!!...

MAITENA’K ANTZEZTEKO EGOKITUA

IPUIN SARIKETA (BILBAO’KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKARAZALEAK ALKARTEA’K, urte guztietan lez aurtan be, ipuin sariketa iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkera, EUSKARAZAINTZA’k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmatuak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER’en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barranean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKARAZALEAK ALKARTEA’ren etxean (Bilbao’ko Colon de Larreategi, 14, 2^a eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoan erabagia eta Zer’en agertuko da, Urterillan.
- Sariak bost izango dira:

1. ^a 300,50 euro	4. ^a 120,20 euro
2. ^a 240,40 euro	5. ^a 60,10 euro
3. ^a 180,30 euro	
- Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
- Epea azillaren azkenera arte.



EUSKARAZALEAK

EUSKALDUNBARRI IZATEA

Euskerazko ikasketak errezak ez dirala esan genduan eta egia da baña, zein ikasketa da erreza?

Barri izaten dan guztiak, bere zailtasuna eukiten dau baña gogoz eta jakin-guraz, naiz laster naiz berandu, menperatu daiteke.

Orretarako jakin-gurea bakarrik ez da bear, eroapena, maitasuna, biotz aundi bat, eta ekiña be, bearrezkoak dira. Zuk guzti au badaukazu, prest zagoz euskeraz ondo ikasteko eta edozein egunetan biotza galtzen badozu, gogoratu eizu:

Gudakoan eta geroago euskaldunei gaztelanieraz ez jakiteagaitik ainbat arazo eta neke gertatu jakezan baña eurek, naiz eta asko eskola-gabekoak izan, bereala ikasi eben, edo bestela lanik barik eta janaririk barik geratuko ziran.

Orain ez gagoz egoera orretan eta askerik gara euskeraz ikasteko baña nik noizean-bein nire buruari itauntzen dautsot:

“Alderantziz izango balitz, ez genduke ariñago ikasiko?”

Eta, zeintzuk dira euskaldunbarrien oztopoak, ikasten dana ez erabilteko? Beti edo ia beti, bardiñak izaten dira: Lotsea, bildurra, kikilkeria... Baña gauza orrek menperatu bear doguz onela ikusten:

– Lotsea zergaitik? Gure aurrean dagozanak ez dakilako? Berak gure badau, ikasiko dau eta gura ez badau, berarentzat txarrago.

– Beldurra zergaitik? Asko ez dakizulako eta ondo ez dozulako esango? Zure aurrean dagonak ondo badaki, esaziozu lenengo, zu ikasten zabilzala eta astiroago esateko.

– Eta kikilkeria? Ori kentzeko oitura artu bear dozu zure ikaskideakaz eguneroko ikasitakoa erabilten, olan egiten, errezenagaz oituratuko zara eta ondo esaten, kikilkeria joango jatzu.

ZURE SABEL ERTZAK

Zurea ez danik zer goralduko lur ontan?
Gurutzean lez, urrutiko ogean natza
goralduz illargi bakartien irritsetan
zure sabelaren ertza.

Aragi usaidun aranteko kabelin.
granada goxo, elduarren ago ler-barri.
Dardar, aginka samurreko masustra-mamin.
Or nik murgil maite-larri.

Arrainak uretan antzo murgil eta mugil
noiz biok bat egingo sakonaren astunak.
Zure barne muinetako uyolak narabil,
zure gunaren sakonak.

Bion leen alkar joa dot dardaraz oroï,
illargia aginka ausi gendunekoa,
izarak ostikoka, ogean lore-murgoi.
Joka gendun itxasoa.

Belardi goxoa, ule abaroa sutan.
barne sakonetan daroat zure aginka.
Putzu zaut, or murgiltzen leize zokondo ortan
itsu ta zorabioka.

Zure erraietara naroan mentzulo zaut.
Auntz-orri arteko ezkutuko argizarra.
Orrek barrenengo barrenetik lapurtu deust
borbor dan maite aparra.

Zu zaitu eremuak baratzik maiteen,
kabelin ta jazminek zuregan marapillo;
zeuri jarraika dozuz ilots eta zoroen
millaka gizaldi pillo.

Lurraren biotz, zu zaitugu munduaren zil,
izarbelek edo, oro dozu inguruka,
eguzki-nini, sagarondoko lore pipil,
eder betea irrika.

Itxas aldera leiatil, erio gardenenaren atarte,
sakonago ta urdinago egunik egun.
Aren arnas lurrinak edatzen betirate
su, zu ta nirarteko gun.

Iruntsi naizu, zulo eme, ene illobi.
Estapel arri bekizure sabel beroa,
zure aragia ol, zure zila arrobi,
betirauna zure alboa.

Murgil nik zuregan, eberdi betean antzo,
urpeko odolez argi dan eberdi sakon
eta zuloak itoaz, itxasoa altzo,
oyua eginik gizon.

Zure erdiaren erdian ni izar aske,
biok bi erestun eginik zuk lotzen alkar,
zu zeu nire jaube, gu biok eginik kate,
betiraunean maite gar.

Euskeraz: BIDAGUREN
MIGUEL HERNANDEZ (Poemas últimos)

PIERRE LAFITTE (1901-1985)

PIERRE LAFITTE (G. B.)
Idazle errikoia, Iparraldekoa
(1985-II-23)

Il zan iparraldean Pierre Lafitte, abadea, Euskalerriari aspaldion izan danik idazlerik punterengoe-tarikoa ta euskaltzaiña: (1985-II-23).

Ustaritze'ko abadegai-etxe txikian irakasle izan da 1926'an asi eta il arte.

Bere lanak: *Egiazko argia* (Antzerkia), *Julien Heguy apheza*, *Eskualdunen Loretegia*, *Elizako liburu ttipia* (berak geitu ta argitaratua), *Euzkadi* (bera diñoenez), *Koblarrien legea*, *Euskal-Herriaren alde*, *Kantuz*, *Jesu-Kristoren Bizitza*, *Azilla edo Hilen ilabethea*, *Herriaren aldeko kantuak*, *Murtuts eta Bertze*, *Mende huntako Euskaldun idazleen pentsa-bideak* (Itzaldia), *Idek eta zabal gogo-bihotzak*, *Bernardo Gazteluzar olerkaria*, eta aldizkarietan beste lan asko, baita beste 14 bat antzerki-lan. Erderaz, France'ko erderaz, beste lan asko eta asko. (Ikusi danaren barria, *Onaindia'ren Euskal Literatura'n*, V, 428-434 orrialdeetan.)

Ba-dira urte pare bat azkenengo ikustaldia egin geuntzola, aita Santi'k eta biok. Antxe aurkitu genduan Ustaritze'ko abadegai-etxe txikian, bere zeregiñetan arduratsu baiña zar-itxuraz eta bere abade-jantzi luzea garbi-garbi ez ebala.

Aitatu doguzan bere liburuetatik ateraten dan lez, Lafitte kanonikua, abade erritarra zan, erriko gauzak azter

tzen eta billatzen zalea eta bere erriaren, Iparraldeko Euskalerriaren maitale zintzoa. Olako gizonak guztiontzat dira maitagarriak.

BATUA ETA LAFITTE

Lafitte, iparraldeko beste euskalzale askoren antzera, ez zan burrukalaria izkuntza-saillean: Bertako euskereari indarra emon, laguntza emon, eta kito.

Baiña euskaltzaiña zan eta izate orrek bultzatuta, batu-zale lez agertzen da.



Euskera batuari iparraldeko berezitasunak eta atxea sartzeko erabagia artu zanean, onako au esan ei eban Lafitte'k: Ez zaitze sartu urperatzen dagoan ontzira". Bera ontzi orretan egoan, baiña egoaldeko euskereak bere bideak artzea naiago eban, sendo jarraitu dagien eta iparraldekoa ikusten eban galbidera sartu ez daiten.

Alperrik izan zan. Euskaltzaindiak oker-bide ori artu eban eta gero ortik jarraitzen da guztion kalterako.

Iratzeder, Belok'eko abatak, be esan eban bein lau edo bost atxe naikoa zirala iparraldeko euskereak bear ebazan bereiztu-bearrak egiteko, baiña Bergara'ko batzarrean 200 atxedun itz eskatu ziran, eskatu eta ezarri. Eta onetan iparraldeko idazleren bat izan zan bultzatu eta bultzagille.

Gure agurra Pierre Lafitte abade ta idazle euskaldunari.

OLAZAR'tar Martin



MAZARREDO

Irakurle zintzoa! Iñoiz igaro zara, katedralerantz, Bilbo'ko kaletik Bidebarrieta zear?

Baietz erantzuten ba-daustazu, kale orretan Mazarredo izeneko itxas-gizon ospatsu bat jaio zan etxea ikusi zeinkean, armarriz erakutsia.

Goazen Mazarredo'ren kondaira-bizitzako argibideak jakitera.

1745 urtean esan dogun etxean jaio zan Bilbo'n eta 1812'an il Madri'len.

* * *

Azken aldietako itxas-gudaketan Gudalbururik argisuen dogu. Berezko gogo kementsuari ikaste sendo ta oarpen gogaketa sakonak batu jakozan.

Ondiño itxas-zaintzaille bakarrik izanda, 1761'ko Jorrailla'ren 13'an, bere erabideak jarraituz, itxas-gizon zarrago eritxien aurkazkoak, Andaluz izeneko itxas-ontzia ez zan ondatu ondartzeta Mata'ko aitz-artean.

Egite onek eta antzeko batzuk aginpide andia emon eutsoen itxas-lagunen artean; eta amabi urte geroago otseintzan igarota, Kartagena Eskualde'ko Gudalburu'aren laguntzaille izendatu eben.

Naigarri egoera euki arren, ikaste ta jakite geiago egiteko, korbet-ontzi Venus'en itxasteratu egioela eskatu ta lortu eban.

Itxas-ontzi au Juan de Langara'ren aginpidean 1772'an Filipinas'era joian.

Itxas txango onetan Mazarredo'k Ludiko luze-zabalgo araudietzaz jakintza andiak egin ebazan; eta abade Lakaille'ren liburu ospetsua itxaskuntza gaiaz irakurri barik, ak esan ebazanak igarri zituan, asmo askotan bat eginda.

Bere guda-egintza arriskudun, bere zintzotasuna, zentzuna ta lanerako aal-izate ta trebetasunagaitik, Cadiz'ko

Itxas Zaindari Lagundi'ren Alferrez agintaritzta emon eutsan erregeak.

Nondik aterako eban astirik beste geiago egiteko?

Alan be, gaztediarentzat itxas-ikaskaiak idatzi ebazan, eta teoriatz ta egikeraz berak azaldu ta irakatsi.

1779 urtean Gaston'ek aginduriko guda-ontzidiren Gudalburu izendatua izan zan, ta urrengoan On Luis de Cordoba'k guda-ontzidiren eginkizuna leporatu eutson.

Ontzidi onegaz ausarti egitada bat zertu eban ingaladar ontzi lerroen arrapatzeaz.

Urte onetan Mazarredo beraren trebetsunagaitik etziran ondatu prantzez españar ontzidi bateratuak Estaing Konde'ren aginte-arinkeria zalata. Oneitariko gauzetan itxas-uda arazoetan Mazarredo'en buru argitsua Artois'ko Kondeak eta Prantziko errege Karlos X'enak autortu eben zintzoro.

Gure Mazarredo etzan bakarrik gauza itxas ibillaldi ta gudetarako, baita legorreko zeregin ta politiketan be. 1799'n Brest'era urtenda, Prantzes guda ontziaz, au itxita Federiko Gravina'ren aginte-pean, Paris'era eldu zan Directorio'gaz burupidea eraztu ta antolatzeke.

Beingoan Napoleon Konsulgo'ra etorri zala-ta, Napoleonegaz diardu Españarrekin maltzurkeria ebillelako.

Mazarredo'k Napoleon'en kaisar-zale ta jauntzar asmoak ezereztu gura zituan. Baiña Madrid'en egoanez Paris'ko aginte menpean deitu eutson ta bialdu Cadiz'ko Nausitza Orokorra artu egian.

Emen gauza onik ezin egin eukeala ikusita, Bilbo'ra bere jatorrirra etorteko eskatu eban. Eskari au onartu eutsoen, eta 1802'an etorri zan Bilbo'ra. Gizon gustiz burutsu ta beargiña izanez, itxaskuntzari buruz sei edo zazpi liburu eder itzi euskuzan.

EGILUZE'K

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbb'ra eta ordaindu 20 €.

Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

EUSKEREAA ETA ESTRATOAK

Iberoen izkuntzak, idazkietan agertu dan lez, berba euskaldunak asko daukaz eta izkuntza aren sustratoa zala euskerea dirudi, edo iberoera euskerearen supe-restrato izatea be ba-leiteke eta olako itzak geroago euskerara ekarriak izan.

Ete da Lurrate Itxasoko izkuntzen sustrato bat, euskerea be or sartzen dala? Ortik etorriak litzakez itz asko España´n, Galia´n eta Italia´n. Itz orreik zabal dabiltzaz eta bereberakaz be batera dagoz. Esatera Perro/can, burro/asno. Sustrato au oso zaarra da sortaldean.

Inguruko izkuntzetan ez da bereizten b/v edo f/v eta ez dauke asierako /r/rik esaterako gaskoiak eta Aragoi´ko erromantzeak. Orrek euskal-sustratoa dago-ala salatzen dau. Bardin esan bear da gaztelaren bost bokal garbiai buruz, euskerearen sustraitik datozela dirudi. Gaztelerea euskaldunak erabillitako laterea da eta farntzera Keltak erabillitako latiaña.

Baiña abostegia alde batera itzita, agiri ete da semantikan euskerearen ikuturik? Orretan indar biolojikoak eta fisilajikoak be ba-dabiltz sustratoan. Ori diñoe Saussure´k. Meille´ek, Darlington´ek eta beste izkuntzalari batzuk.

Euskereak barruan dauka bere erakundea, baiña ba-daukaz kanpotik artutako ikutuak be. Azken au aztertuko dogu orain “estrato” “superestrato” eta “ads-trato” agertuz, orretarako euskereari begiratuko dautsa-gu II gizalditik IX´era.

Lenagoko gauzak aiatu dguz, gogoratu “txalgorri-txu”, “beigorri” eta olako ipuiñak eta “aitz”etik sortuak diran izenak,

Bizkaiera ta Gipuzkoerea banatzea neolitiko edo arri-barri aroa baiño lenagokoa da, M. Lekuona´k esan eban lez. Or etorri ziran indoeuropearrak eta onein ondorena dira lapurdiera(ostegum) ortziaren egun eta egun edo zeruaren egun.

Alde orretatik datoz beste leienda batzuk:Azia ereitearen leiendea, lenengo ogia egin zanekoa, lanabes barrien sorrerakoa, ezitia batzearena, oillarra agertze-arena, errementarien sorrerea eta San Martin Txiki, metalak alkartzearen edo soldaduraren leiendea, zulo-bageko aizkorearena, lenengo auspoarena, erromata-rrenn zubietako leiendak (Nikolasak) eta kristiñautzearen etorrerea ta olentzero...

Eromatarrak ona urreratu ziranean, leiñuak aurkitu ebezan: Ilerjeteak, bezetarrak, akitaniarrak, baskoiak, barduloak, karistioak eta autrigoiak, guztiak Añamendi ta onen alde bietan. Ondorenak arrietan idatzita itzi ebe-zan akitaniarrak, uririk aundienak or egoalako. Idazki

orreitan Jainkoak agertzen dira: Aherbelts, Aberri, Lurgorri, Leheren, Baigoritxo, Iturbe, Andereixo, Arixo, Astoillun, Garr, Baeserte, Larraron eta abar, eta izen arruntak be bai: andere, neskato, sembe, cison, belasko eta abar.

Beste lurraldeetan ez dira agiri, baserriak diralako, baiña Bilbao´tik Jaka´ra bitartean oneik aurkitu dira: Vinburu, Ballisto, Losae, Lakubegi, Umesaar Selatsa, Usece, Heraus Corritseche ta abar. Eta geiago be agertuko dira.

Erromatarrak Euskalerrriaren barruan uri oneik aitatzen dabez: Cascante, Tudela, Lodosa, Andosilla, Cornago, Calahorra, Alfaro, Arakil, Oyartzun, Garazi, Pamplona, Santacara, Jaka, Egea, Mallen. Danak gaur Naparroa´ko euskerearena dan arloan.

Laster asi ziran erromatarrak euskal lurak eurakanatzen sortaldetik sartalderantz, batez be uriak egozan tokietan, esaterako Akitania´n eta Ibero ibaiaren inguruetan baiña ez ziran eldu Gallego ibaitik Ibaizabal´era astirik emon ez eutselako. Menendez Pidal´en ustez muga izan eben lerroa Lerida, Barbastro eta Oska dira.

Ez dogu aitzu bear Iruña-Beleian egiten dirduen azterketa. Onek asko aldatuko dauz gure jakingarriak.

Etorri ziran germaniarrak (409´tik aurrera) baiña V-IX gizaldietan uri askotan egiten da euskeraz edo lateragaz batera elebitasunean. Oska´n luzaro iraun ebalako euskereak (XVII gizaldira arte, jakiña da Dax´en eta Iruña´n XIX gizaldira arte iraun ebalako euskereak.

Godoen eta frankoen aurka ekin eben euskaldunak baskoien eta akitaniarren dukea buru ebela

Chanson de Sainte Foi” liburuak diño santa au erail ebela euskaldunak Aran Ibarrean.

Ibero ibaiari III gizaldian “euskaldunen ibaia, deritxe.


Dana dala, bisigotak Ibero ibaiaren ingurua eta frankoak Garona´ren ingurua kendu euskuezan. Gero musulmanak alde batetik eta Asturias eta Leon´darrak bestetik jarraitu eben euskaldunen aurkako joko ori.

Corominas´ek baieztatu dauan lez, Aragoi´k euskaldun jarraitu eban, toki-izenak % 67 euskaldunak diralako Jaka-inguruan eta % 38 Sobrarbe´n.



824n. urtetik aurrera Naparroa´ko erreñuak batu ebazan euskal leiñuak eta erregeak esaten eban berak agintzen dauala Iruña´n, Araba´n, Gipuzkoa´n, Bizkaia´n, Naxera´n eta Muskaria´n. Au Santxo Aundiak osotu eban, baiña gazkuña ta Toulouse barru dirala.

OLAZAR´tar Martin´ek

EUSKALDUN BARRIENTZAT



GIZA-IRUDI bardin bi dagoz marrazki onetan.
Zeintzuk?



MARRAZKI ONETAN 7 ERRU DAGOZ

BBK

EUSKERAZALEAK

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 euro)

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilerro,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

bbk²